MUKOSITISA

Aho-**MUKOSITISA** ahoko mukosaren inflamazioa da. Honako sintoma hauek agertzen dira: gorritasuna, inflamazioa, lehortasuna (xerostomia), erre-sentsazioa, ultzerak edo zauriak eta mina. Zenbaitetan, infektatu egin daiteke, edo jateko arazoak sortu.

GOMENDIOAK:

- Zaindu ahoko higienea.
- Garbitu hortzak eta oiak, otorduen ondoren eta lotara aurretik, eskuila leun batekin.
- Garbitu ahoa sarritan, urarekin edo alkoholik gabeko disoluzioekin; esaterako, bikarbonatoarekin edo kamamilarekin.
- Hortzordeak erabiltzen badituzu, garbitu egunero, eta kendu atseden hartzean.
- Hidratatu ezpainak kakao-gurinarekin eta antzekoekin.
- Aldizka, aztertu ahoa, gorritasuna, inflamazioa edo zauriak ahalik eta azkarrena atzemateko.
- Sintoma hauetakoren bat agertzen bada: edan ura xurrupaka; ez jan gauza gogorrik, hau da, ogirik, fruta lehorrik, patata frijiturik...; eta hartu janari bigunak eta suabeak, hau da, flanak, jogurtak...
- Ez hartu oso berorik jana eta edana, ezta janari azidorik edo pikanterik ere. Kendu alkohola eta tabakoa.

MUKOSITIRAKO DISOLUZIOA, LITRO BATERAKO

- 250 cc ur + bi zorro kamamila + Scandinibsa (Scandicain) “Mepivacaia klorhidratoa” %2 10 cc-ko bi anp. + Micostatin 60 ml-ko disoluzioa, flasko bat.
- Osatu hori guztia urarekin litro batera arte.
- Sarritan irakuzi ahoan, batez ere otorduen ondoren.
- Disoluzioaren iraupena: 24 ordu.

Berrikusia: 2017ko abuztua

Gehiago jakin nahi baduzu, ez egon dudatan, eta galdetu artatzen zaituzten profesionalei.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD